



Bertsolari Txapelketako finalistak Sahararekin

TOLOSA ▶ Bertso jaialdia antolatu du igandean Usabal kiroldegian Tolosaldea Sahararekin elkarteak ▶ 2



Atzo Tolosako udaletxean eginiko aurkezpen ekitaldia. ESTI EZEIZA



NEREA URBIZU

Gipuzkoako zuhaitz berezienak gurean

ALTZO-ALBIZTUR ▶ Herri horietako pagoak eta izeiak garaieragatik, bitxitasunagatik eta dotoretasunagatik bereizten dira ▶ 4-5

LEITZA ▶

XXVIII. Herri Krosa eginen dute igandean

Aurrera K.E.k antolatuta ▶ 7

PAKO LARRAÑAGA ▶ LARRAÑAGA PRESOAREN OSABA

«Salto izugarria izan da, bizitza itxaropena luzatu baitzaio Pakori»

Alegiar jatorriko Larrañagari heriotz zigorra kendu berri diote Filipinetan ▶ 6



N. LATABURU

VILLABONA-ASTEASU ▶

Txapartegik eta Olarrak torturak salatu dituzte

Atzo '18/98 auzian' deklaratu zuten ▶ 7

hitza
argazki
lehiaketa



bidali argazkiak


ARGAZKIAK NORA BIDALI

▶ P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldekohitza.info
▶ Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA
Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri
OINARRIAK: www.tolosaldekohitza.info

Sari
nagusia

BIDAIA paregabe bat zure neurria

2 laguntzat 5 eguneko egonaldia, mantenu erdiarekin Asturiasen edo Costa Bravan



Bidaia Agentzia
bidaide
www.bidaide.gruposercor.com

Erniobera, 6-behea • 20150 Villabona
Tel.: 943 692 693
bidaide@gruposercom.com

ZOKETA
APARTAK



PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILE guztien artean HITZAren motila eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira



VILLABONA ▶

Ezohizko batzarrera deitu du Behar-Zana Elkarteak

E. EZEIZA

Villabonako Behar-Zana Kirol Elkarteak bertako bazkideei hil honen 23an egingo duten ezohizko batzarrera deialdia egiten die. Aipatu batzarraren lehenengo deialdia 10:00etan izango litzateke eta bigarrena, berriz, 10:30ean. Bertan hitz egingo den gai nagusia honako hau izango da: Behar-Zana elkar-tearen egoitzaren egoera eta etorkizunari buruzko informazioa. Honez gain, Salvador-eko proiektuak izango duen eraginaren inguruko azalpenak emango dituzte. Bestetik, Aburuza Eraikuntzaren proposamenaren aurkezpena eta onarpena eztabaidatuko dute, behar den kasuan. Landuko duten gaiaren garrantzia dela-eta bazkideak batzarrean parte hartzea animatzen dituzte.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**
- Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irua.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ **DYA:** 672536
 - ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- ### Garraioak.
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ### Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Bertsolari Txapelketako zortzi finalistak Sahararen alde

Sahara Bizi elkarteak antolatuta, bertso jaialdia egingo dute igandean Usabalen

ESTI EZEIZA

Atzo aurkeztu zuten, Sahararen alde, igande honetan, Usabalen egingo duten bertso jaialdia. Udaletxean, ekitaldiaren inguruko azalpenak eman zituzten, Ana Trapero Tolosaldea Sahararekin Elkarteke Zuzendariak. Gurutze Irizar 2005eko Sahararen alde egindako lanagatik Euskal Kooperante Saria lortu duenak, Jokin Bildarratz Tolosako alkateak eta gai jartzaille lanetan ariko den Unai Elizasuk.

Lehenengo aldia izango da, Usabal Kiroldegian horrelako ekitaldia egiten dena. Bertan, Euskal Herrian, egun, ospe handienetakoa duten zortzi bertsolari ariko dira; hain zuzen ere, Txapelketa Nagusiko finalistak: Andoni Egaña, Igor Elortza, Sustrai Colina, Unai Iturriaga, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze eta Jon Maia. Hauek Sahara eta sahararren egoera izango dute hizpide saioan zehar. Jaialdia 18:00etan hasiko da, eta Unai Elizasu gai jartzailleak adierazi zuenez, «ziurtatua dago giro paregabea egingo dela, eta oso ondo pasako dutela». Azaldu zuenez, «gai aldetik tratamendu ezberdina emango zaio saioari, hasiera-hasieratik, bertsolariak bere burua kokatua baitu, kontzientziatua dator, eta badaki zeren inguruan abestu behar duen. Bi muturreko sentsazio sortzen saiatuko dira, bada, bertsolariak: tristuraren malkoa, eta irriaren malko».

Ana Traperoren esanetan, «bertso jaialdi honekin, Saha-



Atzoko aurkezpenean, ezker-eskuin: Unai Elizasu, Ana Trapero, Gurutze Irizar eta Jokin Bildarratz. ESTI EZEIZA

rak azken 30 urteetan bizi duen egoera larria salatu nahi dute eta, bide batez, ahal den neurrian lagundu». Bildarratzek gaineratu zuen bezala, «ez da bertso saio soil bat, gizarte baten eskubideen defentsarako proiektu bat baizik». Hori dela eta, «babesa eta laguntzeko borondatea» erakutsi zituen.

«Sahararen egoera oso latza da, eta azken uholdeek egoera okertu egin dute», horrela azaldu zuen Sahararen bizi duen egoera Gurutze Irizarrek. Errealitate hau gertutik ezagutzeko aukera izan du. Gogor salatu zuen Espainiak herrialde honetik duen jarrera; «munduko eskubide guztiak beraien

BERTSO JAIALDIA ▶

Lekua. Usabal Kiroldegian.
Eguna. Igandean, hilak 23.
Ordua. 18:00etan.
Sarrera. 10 euro.
Non lortu. Villabonan: Apa-then eta Iru-aldetan; Ikaztegi-etan: Toki Alain; Ibarran: Karlutzen, Arkaitz-azpin eta Danon Txokoan; Leaburun: Ostatuan; Tolosan: Denaken, Xirimirin eta Klisk argazki dendan; eta Alegian: Iskiñan.

alde dituzte, baina hala ere, oso egoera txarrean daude». 1975ean Espainiak gauzak «oso gaizki» egin zituela, eta

orain ere gaizki egiten ari dela esan zuen. «Deskolonizazio arazo bat» dago, gaineratu zuen. Bere ustez, «arazo politiko bat da, eta irtenbide politiko bat eman behar zaio»; hala, «Ordago bat jo behar du Zapaterok egoera aldatzeko». Berak duen ardura hori hartzeko eskatu zuen izan ere «azken hamasei urteetan erreferendum baten zain daude, ez gerra eta ez bake». Mendebaldeko Saharara itzultzeko eskubidea dutela gaineratu zuen, «NBERen laguntzarekin, edo gabe».

Diru-laguntzaren bat eman nahi duenak, Euskadiko Kutzan, 012.0.08601.6 kontu korrontean egin dezake.

GUTUN@K ▶

Etorkizuna borrokatu!

Orain dela aste gutxi batzuk, ETAK su eta iraukor bat deklaratu zuen. Poza, itxaropena...

Pozik hartu genuen berria, gauzak aldatzen hasiko zirelakoan. Baina PSOEko agintari batzuei entzunik azken aldian honetan, poz hori beldur bihurtzen da niretzat behintzat. Beldurra diot, orain armak ixildu direnean (ETArenak soilik,

noski) hitzak, esaten den gutzia izugarri garrantzitsu bihurtzen da eta entzuten ari naizena ez zait batere gustatzen. Espainiak ez du onartuko Euskal Herrian erabakiko duguna, zeren, haiek diotenez, autodeterminazio eskubidea (eskubidea ez da edo ez dira) ez da existitzen. Eta euskal gizarteak beti erabaki du bere etorkizuna, autokundeetan, alegia. Eta hortik aurrera ezer ere ez!

Eta nire galdera hau da: planteamendu antidemokratiko honen aurrean, zein izan be-

har da erantzuna? Nire ustez, orain kale mobilizazioa erabitekoa izan behar da. Argi eta garbi erakutsi behar diegu (espatuei) hemen herri bat dagoe, bere buruaren jabe izan nahi duen herria. Ezin dugu utzi Kataluniakoarekin gertatutakoa (CIUren traizioa EAJK txalotu zuen, ez dezagun ahaztu) hemen ere gertatzea, hemen ez gara transferentzietaz ari, hemen, herri baten etorkizuna dago jokoan. Horregatik, berriz diot herri mobilizazioa ezinbestekoa dela, tentazioak

asko dira eta (EAJ batik bat). Hau gabe ziur naiz dena pikutara joango dela. Eta gero, ETA borroka armatura bueltatzen bada ez du balioko eskuak burura eramatea; non zinen zu hau gertatu ez zedin? gero ez kejavu! Esandakoa, borroka eta borroka, inork ez digu ezer oparitu eta!

Animo eta aurrera bolie!! Bersarkada iraultzaile bat kartzelan eta ihesean zabilzatenoi. Amnistia eta askatasuna!

JOSU BALZA ▶ IBARRA

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

III. HITZA PILOTA TXAPELKETA ▶



laz Hitza Pilota Txapelketako infantilen finala Beotibarren jokatu zen. JOXEMI SAIZAR

Inoiz baino partaide gehiagorekin hasi da III. HITZA Txapelketa

Maila guztietako mutikoak ariko dira pilotan, Tolosaldeko bost herritako pilotalekuetan, ekainaren bukaera arte

ERREDAKZIOA

Hasia da jadanik Aurrera-Saiaz pilota eskolak antolatzen duen III. HITZA Pilota Txapelketa. Herenegun eman zituzten lehen pilotakadak, inoiz baino pilotari gehiago parte hartzen ari den edizioan: 312 jokalaria.

Maila guztietako jokalaririk ariko dira jolasean, txikienetik helduetarainokoak: benjaminak, alebinak, infantilak, kadeteak, jubenilak eta etorkizunekoak. Guztiek Aste Santuan hasi zen ligaxka honetan jokatuko dute astero, ekainaren bukaera aldera arte.

Partida guztiak Tolosaldeko bost pilotalekutan jokatuko dituzte: Beotibarren, Alegian, Albizturren, Adunan eta Bidegoianen, zehazki.

Parte-hartzeari dagokionez berriz, Tolosaldeko eta Leitzaldeko pilota-eskola guztiek hartuko dute parte: Altzoko Elordi eskolak, Amezketako Zazpi-Iturririk, Alkizako Erniopek, Tolosako eta Bidegoiango Aurrera-Saiazek, Berastegiko eta Alegiko pilota eskolek, Anoetako Kuku pilota eskola, Villabonako Behar-Zanak eta Leitzako Aurrerak. Hauez gain, Gipuzkoako eta Nafarroako beste eskola gehiagok ere hartuko dute parte. Guztira 39 dira jokoan ariko direnak.

39 eskola, 312 pilotari

22 urtez beherakoen, jubenilen, infantilen, alebinen eta benjaminen mailetan 24 bikote ariko dira; 48 kadete; senior

mailako 12 bikote. Orotara 312 pilotari ibiliko dira ekaina bitarte txapelketan.

ASTEKO NORGEHIAGOKAK ▶

ADUNAN
Maila. Infantilak.
Noiz. Bihar, 19:00etan.

ALBIZTURREN
Maila. Alebinak.
Noiz. Bihar, 19:00etan.

ALEGIAN
Maila. Benjaminak.
Noiz. Etzi, 17:00etan.

BIDEGOIANEN
Maila. Kadeteak.
Noiz. Gaur, 19:00etan.

IBARRA ▶

Herriko elkarteei prentsaurrekora joateko deia

Garagardo Festa antolatzen aritzen direnek deia egin diete Ibarra elkarte guztiei, gaur 19:30ean egitekoa duten prentsaurreko agerraldira joateko. «argazki dotorea» ateratzeko. Laister egitekoa dute, noski, Garagardo Festa, maiatzaren 4etik 7a bitarteko asteburuan, zehazki; eta horretxan iragarpena egitekoak dira aipatutako agerraldian. Lanean bezala, horretan ere guztiei parte hartzeko eskaria egin diete antolatzaileek, festa horren laguntzaileei, 11 talde dira. Aipatu prentsaurreko agerraldia, Benito Izagirre kultur etxean egingo dute.

ERREPIDEAK ▶

A-15eko zoladura konponduko dute

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Andoaindik hasi eta Berastegi eta Leiza arteko mugarainoko A-15 autobidearen zatia berrituko duela iragarri du ohar baten bidez. Lanen artean, galtzadako zorua, zoladura, lurreko seinalizazioa moldatu eta berrituko dituzte besteak beste, eta egituretako taulak eta dilatazio joskurak konpondu. Orotara, 17 kilometro luzeko bidean egingen dituzte lan hauek, lau hilabetetako epean eta 2,6 milioi euroko aurrekontuarekin. Gipuzkoako Foru Aldundiak lan hauek enkantera atera ditu, hilaren 18ko Gipuzkoako Aldikari Ofizialean argitaratu berritu duenez.

BIDEGOIAN ▶

Tutorearen bisita gaur, herriko KZgunean

Gaur goizean zehar, 9:00etatik 13:00etara bitartean zehazki, tutorearen bisita izanen dute Bidegoiango KZgunean. Erabiltzaileek tekniko horri zerbitzu horren erabilera, Interneteko sarean edo orohar informatikako zantzak izan daitezkeenak, galdetzeko aukera dute hala, eta argibideak eskatzeko. Aste- edo hilean behingo maiztasunaz joan ohi da bera herri herri.

LEITZA ▶

Kubarako lagutza denda, Karrapen, bihar itxiko dute

Karrapen hilabete honetan zehar irekita daukaten elkartasun denda, ostiral honetan, bihar beraz, itxiko dutela iragarri dute bertako arduradunek. Oroitu, bertan Kubara eramateko dirua biltzen ari direla, Herritarrek emandako askoratiko produktuak dauka salgai bertan: ontziak, oihalak, arropak, tresnak, drogeri gaizak... Han lanean ari direnen esanetan, guztiak «prezio sinbolikoan» eskuratu daitezkeenak dira. Denda berezi horretan jasoko duten dirua, Kubara bideratuko du, herrialde hartan monja dagoen Juanita Zabaleta leitzarrik.

LEITZA ▶

Kiroldegian lapurrak sartu dira, eguerdian

Herenegun, Leitzako kiroldegian lapurrak sartu ziren, eguerdian itxita zegoen bitartean. Hala ohartu ziren bertako langileak, arratsaldean lanera itzuli zirenean. Dirudienetz atzeko ateran batetik sartu ziren, aldeetara dituen larrialdi atetako batetik, hain zuzen. Kiroldegiko arduradunak salaketa jartzekotan ziren. Ustez, diru apur bat eramane zuten lapurrek, ohartu zirenean ariora.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldecohiza.nfo

hilberria ▶

Mercedes Aristizabal Ezkurra

ANDREA
(Inazio Gonzalezaren alarguna)
Atzo hil zen, 95 urte zituela

Zutaz oroitzean Mercedes gogoratuko zaitugu amona xarmanta beti irrifarrez

Hileta elizkizunak, GAUR osteguna, apirilak 20, arratsaldeko zazpitan, Oartzungo San Esteban eliz parrokian.

helbidea ▶ Zubiondo ebea 2.C.
Arragua auzoa

OIARTZUN, 2006ko apirilaren 20a

ZUHAITZAK ▶

Naturaren apetak

Gipuzkoako zuhaitz berezien artean daude Altzoko pagoa eta Albizturko izeia, haien bitxitasuna, dotoretasuna, kontserbazioa eta garaiera direla medio



NEREA URBIZU

Hainbat bitxikeria eman dizkigu naturak, eta bakoak dira askotan haien babesean. Ez da urrutiko pan beharrik, artelanak balliran, denborak, klimak eta lurrak sortutako bitxikeria hauek ikusle zuzenak izateko izan ere, zuhaitz ederrak dira Euskal Herrian, eta baita Tolosaldean ere.

Albizturko izeia eta Altzoko pagoa Gipuzkoako 10 zuhaitz ezohikoen artean daude, bakes berezia jasotzen baitute, haien balioa kontuan izanik. Horregatik, zuhaitz bereziak bezala ezagutzen dira.

Albizturko douglas izeia

Ez digute ezer esaten pasuedo-suga menziesi hitzak, baina hai izenak Latinerazko hitzekin hala ezagutzen da zuhaitz hori. Ez da berez Euskal Herriko espeziea, baina ikaragarri handia egin da pure artean, lurra eta klima oso egokia baitira. Albizturko lurtean bereziki Euskal Herriko douglas izeirik altuena aurkitzen dugu, bere 55 metroko garaierarekin.

Durudienez, Gumerindio Azurmendik XX. mendeko 20. hamarkadan landutakoa da, Euskal Herrian douglas izeia landatzen hasi zen lehenengoa, hain zuzen ere 55 metroko altuera daukala esateko erraz da, baina ez horrenbeste ondoren egotes: 16 solairuko etxebizitza baten altuera dauka, eta oinarria hiru metro eta erdi pasotakoa da. Diametroa, aldez, 1,25 metrokoa. Erreka-aren ondoan dago kokaturik, beste sei alturen artean.

Zuhaitza berezia da bere alturarengatik, ez baitrik gabe. Horrez gain, urte kopurua ere dispartita da, izan ere, pasatu diren urteak pasatuta oso egotia onen dago.

Altzoko pagoa

Gartzaina-Motzetara jo behar da Altzoko pagoa mirezagarri hau ikusteko. Hasi ere, Albizturko izeia bezala, Euskal Herriko zuhaitzen artean berezia da, bere dotoretasun eta tamaina-rengatik. 1997. urteaz geroztik dago bereziki babestua. Zuhaitz izugarri honek 5,60 metroko diametroa dauka, eta 20 metroko kukuila.

Ez da esan beharrik pagoa Euskal Herriko zuhaitz mota

Zuhaitzak bisitatzeko

Altzoko Gartzaina-Motzetako pagoa ikusteko Oarbidetako berriraino iritsi beharra da: Altzoko plazaik Lizartzarako bidetik hartuta dago. Altzoko Aspira jailetako bidetik utzi eta berehala, Oarbidetako baserria ikusi eta aldatu gora egin behar da 200 bat metroz. Egunak eurtsuak izan badira, errepidea ez da batere ona autoz joateko. Segituan ikusten da zuhaitza, errepideari abikita baitago, eskuin aldean.

Albizturko izeia urrutirago dago, baina merezi du bisitatzeko. Intxuralde baserriatik ezkerreko pista hartu egin behar da, antenara bidetara, hain zuzen ere. Kilometro pasatxo igroz ur biltzearen parean autoa utzi eta dinak harrabost bat minutuz egin behar da. Erreka baten ondoan dago zuhaitza. Ometako arropak eramatea komeni da, bidezorra aldatu motza baina deseroso samarra baita.

dela: izozteak ongi jasaten dituen espeziea da, eta euri asko behar du. Alton bezain ongi egoteko Tolosaldean aukera apartak dituela argi dago, horretaz.

Manuel Antonio Imazek landatu zuen pagoa ezkondu egin zen egunean, 1836an. Beraz, 1808. urtean ikaragietara, Aiegia eta Altzoko Udala zenak Gartzain-Motzeta izenarekin ezagutzen zen lurraldea saldu zuen, frantziarren kontra borrokan ari ziren soldaduek mantentzeko. Zuhaitzak bertan daramatza urte mordoak, indartuta, eta beste hainbeste urte bertan egiteko asmoz, oso sendo baitago.

Turismoari begira

Jendea herri hauetara hurbildu ohi da zuhaitz hauek ikusteko. Beraz, nahit eta ez bezelarik ez egin hori buruzko informazioa emateko, jendea nola edo hala enteratu egiten da. Intereseko lekuak baitira.

Noizbait Albizturko zuhaitzak zuzen ikusi nahian dabilen la iduri du, bere altuera ikaragarriarekin. Pagok, aldez, lur eremu zabala aragoa egiten hasiko dela ematen du, urte batetik bestera.

Merezi du leku hauek bisitatzera joateko: naturak eskaintzen dituen artelanek ez dute ikustera joateko arbolaren beste hosto bat bere erortzeaz inportante merezi.



Douglas izeiak piano bateko tekla gutxien artean lodiena dela iduri du: hura besarkatzeko gutxienez bi pertsonen beharra da. **»** URBIZU

GIPUZKOAKO ETA NAFARROAKO BESTE BATZUK ▶ NON AURKITU

Tolosaldean bi zuhaitz berezi ikus daitezke, eta badira beste hainbat Euskal Herri osoan. Gipuzkoan eta Nafarroan dauden zenbat dira hauek:

Berio. Donostiako Igarra auzoan: 23 metro.
Getaria. Arleñatza: altueran 22 metro ditu.
Igara. Haritz: 19 metroko

zuhaitza, kukularen diametroa 20 metrokoa da.
Bergara. Magnolia: 14 metroko diametroa lorzen du.
Hernani. Ginkgo.

Aiako Pagoeta parkea. Hagina: 14 metrokoa.
Arrasate. Sequoia: 38 metroko altuera eta 18 metroko diametroa.

NAFARROA

Aralar. Pagak osaluniko baso zahar eta ederrak.
Leizta. Leiztako Leiztaldea mendian Abies Alba espezieko izask: 40 metroko altuera.

Korella. Artea.
Jauntzarats. Basaburua baserriko herria, Haritza.

Orbitzeta. Hiru besoetako pagoa: 37 metro.
Lakuntza. Pagoa: 14 metro.

Erandi. Lizarrako ondo herria, Artea: 16 metroko kukuila.

Orbitzeta. Iratiko basoan 6-5 metroko urrez: 13 metroko kukuila.

Iruñea. Sequoia: 36 metro eta 14 metroko haren kukuila.

GIPUZKOA

Apizazu. Artea: 16 metro, 28 metroko kukularen diametroa.

Altzoko pagok 20 metroko kukuila dauka, eta oinarria 5,60 metroko perimetro du. **»** URBIZU

BALIOA	ALBIZTURKO IZEIA	ALTZOKO PAGOA	NEURRIAK
Gipuzkoako 10 zuhaitz ezohikoen artean daude, bakes berezia jasotzen baitute haien balioa kontuan izanik	Gumerindio Azurmendik landutakoa da, Euskal Herrian zuhaitz hau landatzen hasi zen lehena, hain zuzen ere	Manuel Antonio Imazek landatu zuen ezkondu egin zen egunean, 1836an; Gartzaina-Motzetan dago	Izeiak 55 metroko altuera du, eta 1,25eko diametroa; pagokak 20 metroko kukuila eta 5,60ko diametroa

Villabona - Kultura

ANTZERKIA

TXALO teatroa

"ERRELEBOA"

APIRIKAK 11 (10:00 eta 12:00)

GAITZKO 11:30

GUREA ARIETUAN

Udal Kultura Batzordea

ALEGIA ▶ GIZARTEA

«Salto izugarria izan da, bizitza itxaropena luzatu baitzaio Pakori»

Alegiar jatorriko Pako Larrañagari heriotz zigorra kendu eta biziarte kartzela zigorra ezarri berri diote Filipinetan

JAIONE ASTIBIA

«Bere gordintasun guztiarekin, baina berri ona izan da». Hala xe baieztatu zion atzo HIRZARI, Pako Larrañaga alegiarrak, izen bereko bere Filipinetako ilobari heriotz zigorra kendu ziotela jakin eta gero. Filipinetako lehendakariak, Aste Santuan iragarri zuen «heriotz zigorra ezarrita zuten 1000 preso ei zigor hori kendu eta bizi diren arteko zigorrak trukatu» ziotela, hala heriotzera zigortutako presorik ez omen delarik gelditu herrialde hartan, beti ere gobernuaren hitzetan.

Aurreneko egunetan, heriotz zigorrera zigortutako euskal jatorria duen Pako Larrañaga tartean ote zen edo ez, zalantza asko izan ondoren, azkenik aste honen hasieran baieztatu zuten berria: Pako Larrañagari ere heriotz zigorra kendu eta ordainez, biziarte kartzela zigorra ezarri zioten. Munduan giza eskubideen aldeko lanean esanguratsu den Amnesty International erakundeak berak ere ontzat jo du gai honetan Filipinetako Gobernuaren jokae-ra. «munduan heriotz zigorraren aurkako borrokan berri handia eta garrantzitsua da, heriotz zigorraren indargabetze bidean», esanez. Kasu honetan, gainera, aipamen berezia egin ere egin du Larrañagaren egoeraz.

Kasuaren berrikuspena

Bizitzaren aurkako zigor hori kentzeaz gain, «Larrañagaren kasuaren berrikuspena exijitzen» jarraitu beharko dela iragarri du erakunde horrek, «epailetan izan ziren irregulartasun guztiak eta epaituaren bermerik ezak» arrazoi nahiko direla aipatuz.



Pako Larrañagarentzat, aurrerapausoa da gertatutakoa. NOELIA LATABURU

PAKO LARRAÑAGA ▶

«Pako errugabea da eta ez du egun bat bera ere kartzelan igarotzea merezi. Kalean ikusi arte jarraituko dugu»

«Oraindik egoerak bere gordintasun guztia mantentzen du, bizitza osorako kartzela zigorra ezarri diote eta»

Iritzi berekoak dira Larrañagaren senideak ere.

Bere Alegiako osabak baieztatu duenez berria behin baieztatu ziotenean, «ontzat eman» zuten: «salto garrantzitsua da hori. Bizitza-itxaropena luzatu zaio Pakori. Nahiz eta egoerak oraindik ere gordintasun guztia mantentzen duen, bizitza osorako kartzela zigorra ezarri diote eta», dio berak. Orain beren planteamendua bestelakoa izango omen da,

baina tentsioa mantenduz: «Lasaia hartuko dugu baina aurrera egingo dugu: Pako errugabea da eta ez du egun bat bera ere kartzelan igarotzea merezi. Bera kalean ikusi arte jarraituko dugu».

Helburu horrekin, kasua berrikustea lortzea dute hurrengo urratsa. «Gure ilobaren epailetan irregularitasunez betetako izan zen, bere eskubideak ez zituzten bermatu. Esate baterako, 35 lekuko zeuden bera ez zela krimenaren lekuan izan baieztatuko zutenak eta epaimahaiak ez zuten bakarra ere onartu». Amnesty International ere baieztatu zuen hori. Bestalde, oraindano izan duten laguntza eskertu du presoaren osabak, «herrikoena, herritarrena, erakundeena...», aurrerantzean bide berean jarraituko dutela baieztatuz.

iragarki laburrak ▶

GALDUTAKOAK

Txakurkumea. Hispanier txakurkume zuri-beltza desagertu da Belauntzan. Informazioa eskertu eta sarituko genuke. 689 89 24 34.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Askotarikoa. Gure webgunean, atal asko daude ikusteko eta erabiltzeko; irakurtzeko nahiz idazteko.

ALEGIA ▶ GIZARTEA



Jende asko bildu ohi da afarian, Alegiako pilotalekuan. HITZA

III. Garagardo Feria, bihar eta etzi arratsaldez

Zer jan ere egongo da herriko pilotalekuan, musikaz eta giro ederraz lagunduta

N. URBIZU

Bihar eta larunbatean egingo dute garagardo feria Alegian. Hirugarren urtea dute, eta besteak bezain arrakatsua izatea espero dute antolatzaileek. Ostiralean Elordi pilotalekuan 19:00etatik aurrera hasiko da jai eta goizaldeko ordu berantiarretara iritsi arte iraungo du festak.

Urtero legez, zer jana ere izango da, garagardo trago eta tragoen artean. Garagardotegietako ohiko jakiak, hain zuzen: ukondoa, saltxitak eta solomo pintxoak. Ondoren, gazta eta bizkotxo ere eskainiko dituzte.

Ostiralean eta larunbatean zehar bilduko duten dirua Intxurre futbol taldeak egiten di-

tuen gastuetarako bideratuko dute. Iaz 4.000 euro lortu zituzten, eta aurten ez dute gutxiago espero. Hain zuzen ere, talde horretako kideak ariko dira barraren atzealdean lanean, Heineken garagardo etxeak ekarritako 8 garagardo motak jendeari zerbitzatzeko.

Aurreko bi edizioetan ere pilotalekuan musika jarri zuten afaria eta egonaldia girotzeko, eta aurtengoan hori ez da faltako. Are gehiago, talde txoren bat edo beste bertan zuzenean entzuteko aukera ere izango dela iragarri dute. Bada, beraz, asteburu honetan ongi pasatzeko aukerarik, aldi berean Intxurre futbol taldeari laguntza ekonomikoa emanaz.

BELAUNTZA ▶ KULTURA



Euskal kondairetan barrena

J. Astibia ▶ Uli Mankomunitateak antolaturiko ludotekan, Euskal Herriko kondairetako pertsonaiak ezagutzeko aukera izan zuten Belauntzako kultur etxean bildu ziren 45 umeek, Ixabel Agirresarobe ipuin kontalariaren eskutik. Era berean, gaur bertan jarraituko dute ludotekako ekitaldiekin. Hala, Orexan, 17:00etan, egingen dute bigarren emanaldia; kasu honetan, Enkarni Genuak, *Erreka Mari* txontxongilo saioa eskainiko du. HITZA

'18/98 AUZIA' ▶

Olarra: «PSOErekin nituen hartu-emanak zapuzteko atxilotu ninduten»

Txapartegik inkomunikazio garaian bortxatu egin zutela baieztatu du

IMANOL GARCIA

Deklarazioa egiteko Joxe Mari Olarraren txanda izan zen herenegun arratsaldean Espainiako Auzitegi Nazionalean egiten ari diren 18/98 auziaren baitan. «Nire ibilbide politikoa- ren fiabardura nagusienak eman nituen eta PPK bultzatu- tako nire atxiloteta ez zela aku- sazio batengatik egin, une ho- rretan PSOErekin bakegintzari buruz mantentzen ari nintzen isilpeko elkarrizketak zapuzte- ko baizik», azaldu dio billabo- natarrak HITZA-ri.

Bere ibilbide guztia publikoa izan dela azaldu zuen epaige- lan: «Gipuzkoan batzarkide, Vi- llabonan zinegotzi, legebiltzar- kide Gasteizen... Nire eginkizu- nak publikoak izan dira beti eta Euskal Herrian burutu ditut. Ez naiz behin ere nazioartean ari- tu. Esan bezala, nire atxiloteta elkarrizketa prozesu bat ekidi-



Olarra billabonatarra. J. SAIZAR

teko zen eta gero erabaki zuten Xaki atalean sartzea, nonbait sartu behar nindutelako».

Deklarazioa Olarrak «36 ur- teko militantziaren erreparaso» egin zuen, bai eta, nola «17 al- ditan atxilotua» izan zen «dau- den tortura mota guztiak sufri- tuz: elektrodoak, palizak, pol- tsa...». Deklarazioa egitea

«gauza zaila» izan dela azaldu du eta azkeneko atxilotetan Guardia Zibilaren aldetik ja- sandako «iraina» nabarmen- du: «aste batzuk lehenago emaztea hil zen. Guardia Zibila etxera sartu zenean bi seme- alabekin nengoan, orduan txi- kiak ziren. Emaztearen arga- zkia lurrera bota zuten. Etxean zegoen diru guztia eramateko agindua zuten eta nik etxean nomina besterik ez nuen. Seme-alabentzako dirua zela esan nien eta Guardia Zibilak euro batzuk hartu eta lurrera bota zituen mespretxuz. Guzti hori epaigelan gogoratzea ten- tsio handiko unea izan zen».

Euskal Herria bizitzen ari den egoera politiko berriak 18/98 auzian eragina izan be- har duela nabarmendu du Ola- rrak. «Auzi hau PPK ezker aber- tzalearekin amaitzeko bultzatu zuten, PSOEren babesarekin. Orain eskuetan erori zaion pa-

tata beroa da auzi hau. PSOEk sortu zuen eta orain bere fru- ituak jasotzen ari da. Berari da- gokio eta bere eskuetan dago auzia zentzu onenean buka- tzea».

Billabonatarrek, bestalde, auziak bost hilabete bete di- tuela gogorarazi du eta «oso astuna» egiten ari dela. «Bizi- tza erdibituta daukat, aste er- dia Madrilan eman behar bai- tugu eta gero ordu guzti hauek lanean errekuperatu egin be- har dira».

Inkomunikazioan bortxatu

Atzoko saioa eta heldu den as- tera arte, Nekane Txapartegi- ren agerraldiarekin bukatu zen. Honek, atxilotu eta inko- munitatuta eduki zuten bitar- tean jasan zituen torturak azal- du zituen, bortxatu ere egin zu- tela gogoraraziz. Galdekettan guardia zibilek agintzen zioten guztia buruz ikasiazazi ziotela azaldu zuen, gero epailearen aurreko deklarazioan hori ber- rresteko helburuz. Behin epai- learen aurrera eraman zutene- an, gorputz militarren esku- tan jasadako tratua salatua zuela ere esan zuen.

ANOETA ▶

Alkartasunakoak, mahai-jokoetan lehiatzen

Alkartasuna Biltokiko hain- bat kide joango dira bihar Urrietara Komarka-Tolosal- dea eskualdeko mahai joko- en lehiaketan parte hartzen. Musean (zortzi eta lau erre- getara), tutean, punttuan, eskoban, seiko urrean eta to- kan ariko dira lehiatzen. 09:45ean egin dute bihar hitzordua tren geltokian. Lehiaketa horretan irabazten dutenek Goierriko irabazle- en aurka jokatu beharko dute.

ALEGIA ▶

Gingala taldearen kontzertua gaur Gaztetxean

Suitzatik etorritako Gingala taldeak kontzertua eskainiko du gaur gauean Alegiako Gaztetxean. Cucaracha coc- tail club diskoa atera berri dute eta horren aurkezpena egiten ari dira. 22:00etan ha- siko da emanaldia.

LEITZA ▶ KIROLA

Igandeko herri krosa abiatzeko dena prest

Aurrera Kirol Elkarteak antolatu du XXVIII. ediziora iritsi den proba; izen-ematea, igandean bertan edo internetez

ERREDAKZIOA

Aurrera Kirol Elkarteak antola- tu du beste behin Leitzako He- rri Krosa. Dena prest dago iganderako, XXVIII. edizioa izango den probarako. 10:15- ean ekingo diote, benjaminen probarekin. Ondoren, alebinak eta infantilak ariko dira, 10:30ean hasita. Azkenik, 11:15ean, kadeteek, juniorrek, seniorrek eta beteteranoek har- tuko dute parte.

Izena emateko bi aukera di- tuzte parte-hartzaileek. Alde batetik, igandean bertan, 09:30etik aurrera, antolatzaile- aren elkartearen bertan. Bestal- de, internetez egin daiteke, www.herrikrossa.com helbi- dean. Korrikalari guztiak izan- go dute sariren bat. Txikienek dominak jasoko dituzte (benja- min, alebin eta infantil mailako- ek) eta lehenengo hirurek ga-

MAILAK ▶

Benjaminak. 1997 eta ondorengo urteetan jaiotakoak. 800 metro egin beharko dituzte.

Alebinak. 1995-1996 urteetan jaiotakoak. 2.500 metro egin beharko dituzte.

Infantilak. 1993-1994 urteetan jaiotakoak. Mutilek 5.000 metro eta neskek 2.500 metro egin beharko dituzte.

Kadeteak. 1990-1992 urteetan jaiotakoak. Mutilek 5.000 metro eta neskek 2.500 metro egin beharko dituzte.

raikurrak. Gazte eta helduek kamiseta jasoko dute probaren amaieran eta lehenengo bos- tek garaikurrak izango dituzte. Senior mailan lehenengo bos- tek dirua ere jasoko dute sari gisa.

Juniorrak. 1987-1989 urteetan jaiotakoak. Mutilek 7.500 metro egin beharko dituzte eta neskek 5.000 metro.

Seniorrak. 1986 eta aurreko urteetan jaiotakoak. Gizonezkoek 10.000 metro egin behar dituzte eta emakumezkoek, berriz, 5.000 metro.

Beteranoak. Gizonezkoek, 40 urtetik gorakoek, 7.500 metro. Emakumezkoek, 35 urtetik gorakoek, 5.000 metro.

Festak arratsaldean ere ja- rraitzeko, bazkaria antolatu dute Iruso jatetxean, 14:30ak aldera. 25 euro balio du eta Pe- ritzta eta Gaztañaga tabernatan eros daitezke txartelak. Gaur da azken eguna horretarako.



Herriko kaleetatik zehar igaroko dira korrikalariak. J. ASTIBIA



AGENDA ▶

DEIALDIK

Alegia. Gingala taldearen kontzertua 22:00etan Gaztetxean.

Alegia. Uztailen eta abuztuaren 7 eta 12 urte bitarteko Saharako haur bat hartzeko prest dagoen familiak udaletxeko Gizarte Zerbitzuetako bulegora deitu beharko du.

Baliarrain. Txekor-jatea antolatu dute hilaren 30ean. Txartelak erosteko azken eguna hilaren 24a izango da.

Berastegi. Maiatzaren 6an izango da podologoaren bisita, 09:30etik 12:15era. Ordua hartzeko, Gaztainondo elkartean edo 943 68 32 64 edo 943 68 32 02 zenbakietara hots eginez.

Ibarra. Txan magoaren emanaldia, 11:30ean, Kultur Etxean.

Orexa. Enkarni Genuaren *Erreka Mari* txobongilo emanaldia 17:00etan.

Tolosa. *Sahara Bizi Tolosaldea Sahararekin* elkarrekin antolatuta, bertso jaialdia izango da igandean, hilaren 23an, 18:00etan, Usabal kiroldegian. Txartelak 10 eurotan salgai, Leaburuko Ostatuan, Tolosako Xirimirin, Denak-en eta Klisk-en, Ibarra Karlatz-en, Arkaitz-azpin eta Danon Txokoan Villabonako Apatx-en eta Iru-aldetan, Alegiako Iskiñan eta Ikaztegietako Toki-Alain.

IKASTAROK

Bidegoian. Botika naturalen ikastaroa izango da hilaren 24an eta 27an eta maiatzaren 4an eta 5ean, 14:30etik 16:30era, balio anitzeko gelan. Izena eman daiteke udaletxean. 4,50 euro balio du ikastaroak.

III. HITZA lehiaketako lehen argazkiak iritsi dira dagoeneko

LANTXURDA ▶

Amia Balerdi (Tolosa).

Amia Balerdi tolosarrak bidalitakoa izan da lehiaketarako iritsi zaigun lehendabiziko argazkia. Nafarroan, Lantxurda mendian atera zuen argazkia:

«Nafarroako Lantxurda menditik hainbat haize errota ikusten dira. Hauek, honela bistatzen ziren, Ostegun Santuan Done Jakue bide inguruan, Izko mendilerroan».



Alegia. Kultur Etxean memoria tailerra. 15 ordu iraungo ditu eta 15 astetan egingo da, asteartero 11:00etatik 12:00etara, otsailaren 7tik maiatzaren 30a arte. Izen-ematea asteleheneetik hilaren 31 bitarte egin daiteke.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Ollarreaga A. Korreo kalea 2. 943 67 01 28.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa:* eguraldia Joxe Landarekin, HITZAREN errepassoa, agenda, elkarrizketak, albisteak, lehiaketa, disko eskainiak...

19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (erreplikapena).

21:00-22:00. *Gora Euscadi Txistulari.*
21:00-23:00. *Gau bero* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ULERTZEKO Garai Berria

berria²

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Maitane Sorron.

Zorionak eta muxu bat Amaiaeren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
agurren tartea